

Benidormeko uhartea.

Zeru-urratzaileen monolaborantza da Benidorm. Harean ainguratutako zementua, eta haizeak egurastua. Mediterraneo itsasoaren olatuek miazkatzen dituzte betoizko erraldoi horien hankak.

Benidorm bihurtu dena bihurtu izana ez da kasualitatea. Aitzitik, ezin eztabaidatuzko arrazoa zegoen: Penintsulako sortaldeko toki eder eta atseginetariko bat zen.

Egitura karratu horien kontraste gisa, portutik bi itsas miliatara, uharte bat dago, iragan desberdin baten lekuko.

Benidormeko uhartearen biztanleak, batez ere, kaioak eta indipikondoak dira. Mediterraneoeko paisaia, zalantzarik gabe. Bertan, Iberiar sugandila harri kiskalien artean dabil paseoan.

1834. urtean, uharte hau Benidorm eta Vila Joiosa hainbat familiaren erbestea izan zen.

Erbesteratuak kolera izurri bati ihes egin nahian iritsi ziren hona. Familia horiek eta zenbait joan-etorrian zebiltzan zenbait pirata izan dira uharteko biztanle bakarrak. Egun, ontziz iristen diren turistak ikusten dira, hirian begizta ezin daitekeen zerumugaren bila etorriko balira bezala.

Benidorm hiriak urak esplotatzeko eskubidea zuen 1506. urtera arte. Orduan, Fernando Katolikoak eskubide hura Vila hirira zabaldu zuen.

Bendiormeko uhartearen inguruko itsasoaren aberastasuna gutiziatzea ere ez zen kasualitatea, bertako arrain ugartasuna antzinatek famatua baitzen.

Itsas azpiko begi kolpe laburrenak ere agerian uzten du aberastasun gutiziatu hau.

Arrain ugartasun eta aniztasunak amaigabea ematen du. Itsas sugea, muxarra, kraba inperiala, krabarroka txikia, olagarroa, erregetxoak, hamaika motatako belaki, krustazeo, zizare eta moluskuak... Itsas zoologiako entziklopedia oso bat, Benidormeko uhartearen ur-azpiko luzapen eta inguratzen duten hondoetan pilatua.

Arrain honek hizkuntza ezberdinetan izen ugari izaten ditu: Seriola, limoi-arraina, verderón, alballada edo lecha. Sarda estuetan bildurik, posidonia zelaietan zehar ibiltzen dira, elikagaiak eta neurri bateko babesa eskaintzen baitizkie.

Fanerogamo zelaietan elikadura-piramide osoa garatzen da, piezek elkarren beharra duten eta elkarrekin moldatzen diren ekosistema bat sortuz. Beraz, zelai horiek suntsituz gero, arrantza bera ere mintzen da.

Hondo hareatsuak lohitako barbarinaren eremuak dira.

Eta itsas izarrarenak, batzuetan alderantziz jarritako gau ilun bat diruditenak.

Baina itsasoak hondora ainguratutako izakiak ere mugiarazten ditu.

Mugi daitezkeenek bestelako mekanismoak baliatzen dituzte elikadura eta babesa aurkitzeko. Olagarroak eta itsas sugeak, biek, hustasunak dituzte gustuko.

Hostorrien artean igeri egiten dutenek taldean bilatzen dute babesa.

Harrapariak zain egoten dira eta.

Benidormeko uhartearen inguruko uretan, horma, hondo eta zelaiek Mediterraneoaren berezko bizitzari ostantu ematen diote. Heroi eta printzesez josirik jatorri mitiko batez hitz egiten diguten elezaharrez inguratuz, Sierra Geladako labarren jarraipen bat da.